


# Liburu elektronikoaren borroka

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

**Liburu elektronikoari buruzko zerbait entzuten dugun bakoitzean, PDF edo antzeko formatuan dagoen liburua datorkigu burura, zure ordenagailura jaitsi eta irakurtzeko aukera soilarekin. Baina bilioika dolarreko merkatu batez ari garenez, gauza ez da hain sinplea: konpainia handiak sartzen dira jokoan eta bakoitzak pastelaren zatirik handiena nahi duenez, gauzak nahasten hasiak dira.**

PIXKANAKA HASIKO GARA: ZER DA LIBURU ELEKTRONIKOA? Bueno, hori gauza jakina da: pantailan irakurtzeko moduan argitaratutako liburua. Liburu horiek Internet bidez erosten dira eta norberak bere ordenagailu, PocketPC edo eBook irakurgailuan irakurtzen ditu. Askotan liburu horiek ezin dira inprimatu eta behe-bera kargatzen diren ordenagailuan bakarrik irakur daitezke eta, horrela, pirateatzearen aurka babestu. Tontakeria dirudi inork liburuak pantailan irakurtzeko gogoia izango duela pentsatzea, baina enpresa handiek hor merkatu izugarria ikusten dutenerako zerbaitegatik izango da.



ARTXIBOKOA

Egia esan, badaude hainbat aurrekari: Stephen King da segur aski ezagunena. Idazle horrek bere azken liburuak Internet bidez bakarrik argitaratu ditu eta aurrerantzean ere horrela argitaratzen jarraitzeko asmoa azaldu du. Frederick Forsyth idazle britainiarrek ere "Quintet" izeneko ipuin-bilduma Internet bidez argitaratzeko asmoa azaldu berri du. Idazleentzat honek abantaila nabarmen bat dauka: beraien irabaziaz izugarri handitzen dira, artekariak murrizten baitira.

## Segurtasuna

Orain arte sistema horri aurkitu zaion arazorik handiena segurtasunarena izan da. Nola ziurtatu erabiltzaileek ez dituztela liburuak kopia eta elkarri utziko? Horretarako, enkriptatze-sistema berezi-

tuak sortu dituzte, baita liburuen salmenta segurua ziurtatzeko sistemak ere. Esaterako, Adobe etxeak PDF formatuaren aldeko apustua egin du eta, horretarako, Web Buy izeneko sistema sortu du. Horren bidez, edozein liburuaren edizio elektronikoa eros daiteke Internet bidez, baina liburu hori ezin da ez inprimatu ezta kopia ere, eta behe-bera kargatzen den ordenagailuan bakarrik irakur daiteke.

Dena den, segurtasuna ez dago inondik inora ziurtatua. Berriz ere Stephen King-en kasua aztertuz konturatuko gara horretaz: Internet bidez argitaratu zuen lehen liburu "Riding the Bullet" izan zen. Berak salgai jarri eta hurrengo egunean inprimatzeko aukera eskaintzen zuten liburuaren kopia pirata bazeuden sarean.

Dena den, ez pentsa gutxi direnik formatu elektronikoan argitaratu diren liburuak. Egun milaka liburu aurki ditzakegu formatu horretan, eta, liburuez gain, aldizkari eta egunkariak ere argitaratzen dira formatu honetan.

## Teknologia

eBook irakurgailuak dira berariaz liburu elektronikoak irakurtzeko erabiltzen diren tramankuluak. Irakurgailu elektronikoko horietako batek testu-kopuru izugarria jaso dezake. Esate baterako, 340 Mb-eko disko gogorra duen irakurgailuak laurehun orrialdeko 850 liburu gorde ditzake. Travelstar irakurgailu elektronikoak 12 Gb-eko disko gogorra dauka eta hamabi milioi testu-orrialde jaso ditzake bertan, edo berrogeita hamar aldizkari argazki eta guzti.

*“340 Mb-eko disko gogorra duen irakurgailuak, laurehun orrialdeko 850 liburu gorde ditzake”*

Baina gaur egungo arazoa ez da liburu elektronikoaren gaitasuna, edo bere pantailaren kalitatea: arazoa formatua da. Merkatuan hainbat konpainia sartu direnez, bakoitzak bere formatua ezarri nahi du irakurketarako eta horrek irakurleak nahasi egiten ditu: liburu bat PDF formatuan edo Microsoft Reader formatuan behera karga dezakezu. Liburuak irakurtzeko irakurgailu elektronikoa erabil dezakezu, edo baita PocketPC batean irakurri ere. Diferentzia hau da: irakurgailu elektronikoa horretarako soilik erabiltzen da, PocketPCa berriz, poltsikoko ordenagailua da, eta, liburuak irakurtzeaz gain, bestelako erabilerak ere baditu. Horren arazoa sistemaren kalitatean dago: erabilera anitzetako tresna denez, PocketPCaren pantailaren kalitatea eta liburu-irakurketarako zer-

## Windows ME eta birusak

Urriko alean hitz egin genuen Windows Millenium Edition berriaz. Bada, zabaldu berri denez, Windows berri hori birusentzako laguntza ezin hobea da System Restore ize-  
neko aplikazioari esker. Aplikazio hori aktibo dagoelarik birus batek sistemako fitxategi bat kutsatzen badu, fitxategia “restore/temp” izeneko direktorioan gordeko da. Hori dela eta, birus-  
kontrakoez ezingo dituzte fitxategi horiek garbitu. Hala ere, erabiltzaileak birusa ezabatzea lortzen badu, Windows konturatuko da fitxategi horiek aldatu egin direla erabili ziren azken alditik, eta gordeta duen kopia berreskuratuko du; eta ondorioz, berriz ere birusa aktibatuko egingo da. Horrelakoetan, desinfektatzeko geratzen den aukera bakarra honakoa da: diskete batetik abiatu ordenagailua eta ondoren “restore” karpeta dagoen guztia ezabatzea.



ARTXIBOKOA

## On line telebista Iparraldean

Euskal Herriko Internet bidezko lehen telebista Iparraldean abiatu zuten joan den abuztuan. “TVPI Pays Basque” izenekoak, Baionako festetarako abiatu zen eta hamar pertsonako lan-taldeak osatzen du. Bertan gai lokalak agertzen dira, bereziki kirolak: pilota, errugbia edo surfa esaterako. Honako helbidean topatuko duzue: [www.tvpi.fr](http://www.tvpi.fr)



ARTXIBOKOA

bitzua irakurgailuak eskaintzen dituenak baino kaskarragoak dira. Irakurgailua gainera askoz erosoagoa da, txikiago eta erabilgarriago delako. Gainera, PocketPCak ordenagailuak direnez, askoz errazago hackeatu daitezke, eta beraz, argitaletxe batzuk ez dira arriskutzen beren Best Seller-ak sistema horretan eskaintzen. Baina teknologia horiek guztiz berriak dira eta pixkanaka hobetzen joango dira. PocketPCaren kasuan, badi-rudi Microsoft-ek izugarritzko apustua egin nahi duela liburu elektronikoan irakurketa sistema horretara egokitzeko, eta, horretarako, Microsoft Reader formatua sortu du bereziki, baita Barnes

and Noble eta Amazon-ekin hainbat akordio sinatu ere.

Enpresen arteko apustu horrek irakurleengan izango duen arrakasta ikusi beharko da ordea. Duela gutxi egin da Washington-en liburu elektronikoan inguruko hirugarren topaketa. Bertan azaldu zuten, duela gutxi 1.140 liburu-erosleren artean egindako inkesta baten arabera, lau pertsonak bakarrik uste zuten liburu elektronikoak paperezkoa ordeztuko duela eta % 60k bakarrik zekien Stephen King-en azken liburua formatu elektronikoan lor zitekeela. □